

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA 2017KO ABENDUA


Euskal AEko industri jarduera %6,3 gehitu zen 2017ko abenduan

%3,0ko hazkunde metatua 2017an industrian, 2016an baino zazpi hamarren gehiago

Eustaten arabera, 2017ko abenduan %6,3 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeenetan, 2016ko hil beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %2,7 gehitu zen, 2017ko azaroarekin alderatuta.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%) Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2017ko abenduan, 2016koaren aldean: *Ekipo-ondasunak* %6,8 gehitu; *Bitarteko ondasunak* %5,6; *Energia* %2,4; *Kontsumo-ondasunak* %4,2; *iraunkorrek* %1,3, *ez-iraunkorrek* %5,3.

Azaroaren aldean, 2017ko abenduko hil arteko aldakuntza positiboa sektore handi guztietan: *Ekipo-ondasunak* %2,8; *Bitarteko ondasunak* eta *Energia* %1,5; *Kontsumoko ondasunak* %1,6; *iraunkorrek* %0,4, *ez-iraunkorrek* %2,1.

Hazkunderik handienak 2017ko abenduan, urte artean: *Kautxu eta plastikoa* %9,3; *Material eta ekipo elektrikoa* %9,2; *Makineria eta ekipoa* %6,4. Jaitsiera urte artean: *Zura, papera eta arte grafikoak*, %-6,2.

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	6,0
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	4,9
09 - Kautxua eta plastikoak	9,3
13 - Makineria eta tresneria	6,4
14 - Garraio-materiala	5,6
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	4,2
12 - Material eta tresneria elektrikoa	9,2
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-6,2

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeetan, urte artean, abenduan: Gipuzkoan %9,8 gehitu; Araban %7,9; Bizkaian %2,1.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2017ko Abendua

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak	
	Abe2017 / Abe2016	A(Abe2017) / A(Abe2016)(*)	Abe2017 / Aza2017	Aza2017 / Urr2017
Indize orokorra				
Euskal AE	6,3	3,0	2,7	1,2
Araba/Álava	7,9	3,3	2,2	1,4
Bizkaia	2,1	3,3	1,7	0,3
Gipuzkoa	9,8	2,4	4,0	2,0
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	4,2	2,5	1,6	1,3
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	1,3	13,5	0,4	-3,5
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	5,3	-1,5	2,1	3,4
Ekipo-ondasunak	6,8	0,0	2,8	1,7
Bitarteko ondasunak	5,6	5,4	1,5	0,5
Energia	2,4	2,9	1,5	0,1

(*) 2017ko urtarrietik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2016eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Industri Produkzioaren balantzea 2017an: Bitarteko ondasunak lider hazkunderan, %5,4.

2017ko Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizean %3,0ko hazkundera aurreko urtearen aldean; 2016an %2,3.

Kautxu, plastikoa eta ez-metalezko beste produktu mineralak aipatu behar, %7,4ko hazkundera urtean. Beste hazkunde aipagarriak 2017an: Industria kimikoa (%5,6); Produktu informatiko, elektroniko eta optikoak (%5,5). Jaitsierarik handienak urte artean: Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza (%-3,0); Produktu farmazeutikoen fabrikazioa (%-2,4); Material eta ekipo elektrikoa (%-0,6).

Bitarteko ondasunek %5,4ko hazkunde metatua; Energiak %2,9; Kontsumo-ondasunek %2,5. Ez-iraunkorrek %-1,5; iraunkorrek %+13,5. Ekipo-ondasunak lehengoan (%0,0) 2017an aurreko urtearen aldean.

Araban eta Bizkaian %3,3ko hazkuntza 2017an; Gipuzkoan %2,4.

Informazio gehiago.

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62*